

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

**HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK**

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Gobernuak herritarren hiru parte-hartze proiektu saritu ditu

Olo kontseilariak diplomak eman dizkie Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuari, Leitzako Udalari eta EDER Kantsortzioari

Ostirala, 2018.eko urriak 5

Herritarrekiko eta Erakundeekiko

Harremanetarako kontseilari Ana Ollok ostiral honetan sariak eman dizkie Herritarrek Parte Hartzeko Jardunbide Egokien Lehiaketa irabazi duten erakundeei; horren bitartez, demokrazia parte-hartzailea hobetzeko ezagutzak eta erremintak ematen dituzten proiektuak onartu eta saritu nahi izan ditu exekutiboak.

Ekitaldian, Landa

Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentua saritua izan da, Gobernuaren departamentuei zuzendutako kategorian, Nafarroako Hondakinen 2017-2027 Planaren parte-hartze prozesua dela-eta. Toki Erakundearen kategorian, berriz, Leitzako Udalak abian jarritako Leitza Kontsumituz proiektua saritu da. Eta, azkenik, Toki-mailako taldeetan parte hartzera zuzendutako kategorian, EDER Kantsortzioaren ECEI RN Nafarroako Erriberako Espezializazio Adimentsuko Eskualdeko Estrategia proiektuak lortu du saria.

Sarituen ordezkari gisa, diplomak jaso dituzte Eva García Balaguerrek, Ingurumeneko eta Lurraldearen Antolamenduko zuzendari nagusiak; Mikel Zabaleta Aramendiak, Leitzako alkateak; eta Eneko Larrarte Huguetek, Eder Kantsortzioko lehendakariak.

Ekitaldia Nafarroako Jauregiko Tronuen Aretoan egin da gaur goizean, eta kontseilariak nabarmendu du herritarren parte-hartzea sustatzea "izan dela beti Nafarroako Gobernuak legealdi honetan duen helburuetariko bat". Ildo horretan, eta Herritarrek Parte Hartzeko I. Plana onartu ondoren, "arlotan jardunbide egokien kasuan publikoki saritzea erabaki genuen".

Hondakinen Planaren parte-hartze prozesutik, kontseilariak "plangintza eta diseinu egokia nabarmendu ditu, erakundearen eta gizartearen inplikazio garrantzitsuarekin". Leitza Kontsumituz proiektuari



Olo kontseilaria eta Komunikazioko eta Erakundeekiko Harremanetako zuzendari nagusia, Pello Pellejero, saritua izan diren erakundeetako ordezkariekin, Tronuen Aretoan.

dagokionez, “tokiko agente ezberdinen inplikazioa eta proiektuak sortutako lankidetzaren sare interesgarriak” saritu nahi izan ditu. Azkenik, Nafarroako Erriberarako S3ko Eskualdeko Estrategia proiektutik, Olo kontseilariak nabarmendu du parte-hartze prozesuak sinergiak sortzea eta motibazioa gehitzea lortu duela Erriberako agente sozial, ekonomiko eta instituzionalentzat.

Galería de fotos



Representantes del Consorcio Eder, con el premio.



Representantes del Departamento de Desarrollo Rural, Medio Ambiente y Administración Local, con el premio.



Representantes del Ayuntamiento de Leitza, con el premio.